

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

SEGURTASUN SAILA

2160

AGINDUA, 2025eko maiatzaren 2koa, Segurtasuneko sailburuarena, zeinaren bidez adimen-desgaitasuna duten pertsonak enplegu publikoan sartzeko hautaketa-prosezuetarako deialdia egiten baita Segurtasun Administrazioako langile lan-kontratudunen eremuan, eta prozesu horiek arautuko dituzten oinarriak onartzen baitira.

Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 75. artikulua ezartzen duenez, adimen-desgaitasuna duten pertsonak euskal sektore publikoan laneratzeko hautaketa-prozesu independenteen deialdia egingo da. Prozesu horietan, gutxienez ehuneko hogeita hamahiruko muga intelektuala duten pertsonak soilik parte hartu ahal izango dute. Gaineratu duenez, sistema horren bidez bete ahal izango diren plazak administrazio publikoek beren lanpostu-zerrendetan edo antzeko tresnan erreserbatu dituztenak izango dira, aipatutako ezaugarriak dituzten pertsonak bete ditzaten.

Segurtasun Administrazioako langile lan-kontratudunentzat gordetako lanpostuen zerrendak ezaugarri horiek dituzten bi plaza jasotzen ditu, eta horiek dira agindu honen bidez deitzen direnak. Plaza horiek hutsik daude, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren organismo autonomoen 2022ko enplegu publikoaren eskaintzan sartu ziren. Eskaintza hori Gobernu Kontseiluaren 2022ko maiatzaren 24ko Erabakiaren bidez onartu zen.

Horregatik guztiagatik, aipatutako lege-arauetan ezarritakoarekin bat etorriz, Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 18. artikulua (2.q) apartatuan xedatutakoa ikusita, eta Segurtasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 318/2024 Dekretuak ematen dizkidan eskumenez baliatuz, Segurtasun Saileko eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako langile lan-kontratudunen hitzarmen kolektiboaren 10. eta 12. artikuluei dagokienez, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Adimen-desgaitasuna duten pertsonak enplegu publikoan sartzeko hautaketa-prozesu hauetarako deialdia egitea:

– Mendeko-plaza baterako prozesua; Segurtasun Sailaren eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren langile lan-kontratudunen hitzarmeneko langile lan-kontratudun finkoak.

– Ostalaritzako laguntzaile-plaza baterako prozesua; Segurtasun Sailaren eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren langile lan-kontratudunen hitzarmeneko langile lan-kontratudun finkoak.

Bigarrena.— Agindu honen I. eranskinean agertzen diren oinarri orokorrak, mendeko-plazaren oinarri espezifikoak eta ostalaritzako laguntzaile-plazaren oinarri espezifikoak onartzea.

Hirugarrena.— II. eranskinean agertzen den gai-zerrenda orokorra onartzea.

Laugarrena.— III. eranskinean agertzen diren eskabide-eredu ofizialak onartzea.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, interesdunek aurrerako berraztertze-errekurtsoa aurkez diezaioke Segurtasuneko sailburuari, hilabeteko epean, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete zuzenean, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, bat etorritik Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoarekin.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko maiatzaren 2a.

Segurtasuneko sailburua,
BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI.

I. ERANSKINA

I.- OINARRI OROKORRAK

1.- Xedea.

Oinarri hauen xedea da adimen-desgaitasuna duten pertsonak Segurtasun Administrazioako enplegu publikoan sartzeko hautaketa-prozesuen arau orokorrak ezartzea.

2.-Prozesu motak.

2.1.- Enplegu publikoan sartzeko bi hautaketa-prozesutarako deialdia egiten da: bata, Mendeko plazarako, eta, bestea, Ostalaritzako Laguntzailearen plazarako.

Bi prozesuak oposizio-sistemaren bidez egingo dira, eta txanda bakarra egongo da, txanda irekia.

2.2.- Izangaiek deialdiko prozesu bakarrean edo bietan parte hartu ahal izango dute.

2.3.- Hautatutako pertsonak Segurtasun Administrazioako langile lan-kontratudun finko bihurtuko dira, 11. oinarrian xedatutakoaren arabera.

3.- Parte hartzeko betekizunak.

3.1.- Betekizunak betetzeko datak.

Lanpostuetarako izangaiek eskabideak aurkezteko epea bukatu baino lehenago bete beharko dituzte oinarri orokorretan ezarritako betekizunak, eta betekizun horiek betetzen jarraitu beharko dituzte kontratua sinatu arte.

3.2.- Parte hartzeko betekizun orokorrak.

3.2.1.- Hauek dira hautaketa-prozesu hauetan onartuak izateko betekizunak:

a) Foru-aldundietako organo eskudunak, IMSERSOk edo baliokideren batek ziurtatutako % 33ko edo hortik gorako adimen-desgaitasuna aitortuta izatea.

b) Europar Batasuneko edozein estatu kideetako nazionalitatea izatea.

c) Parte hartzeko aukera izango dute, halaber, Europar Batasuneko estatu kideetako herritarren ezkontideek, nazionalitatea edozein dela ere, zuzenbidez bananduta ez badaude, eta haien ondorengoek, eta, ezkontidearen ondorengoek ere, baldin eta zuzenbidez bananduta ez badaude, hogeita bat urtetik beherakoak badira edo, adin horretatik gorakoak izanda ere, gurasoen kontura bizi badira. Era berean, Europar Batasunak izenpetu eta Espainiak berretsitako nazioarteko itunen aplikazio-eremuan dauden pertsonak ere parte hartu ahal izango dute, baldin eta itun horietan langileen zirkulazio askea aplikatzen bada.

d) Aurreko paragrafoetan sartzen ez diren eta Espainian legezko bizilekua duten atzerritarrek parte hartu ahal izango dute.

e) Deitutako lanpostuei dagozkien zereginak betetzeko gaitasun funtzionala izatea; Prebentzio Zerbitzuak egiaztatuko du hori, lan-kontratua sinatu aurretik. Hori guztia, alde batera utzi gabe urriaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorren testu bateginean jasotako aurreikuspenak aplikatzea.

f) 16 urte beteta izatea eta ohiko erretiro-adina beteta ez izatea.

g) Inongo administrazio publikotako zerbitzutik edo autonomia-erkidegoetako konstituzio- edo estatutu-organoetatik bereizi ez izana, diziplina-espediente bidez.

h) Ebazpen judizial bidez erabateko edo berariazko desgaikuntzarik ez izatea enplegu edo kargu publikoetarako, funtzionarioen kidegoan edo eskalan sartzeko edo, lan-kontratudunen kasuan, bereizitako edo desgaitutako enplegu edo kargu publikoan betetzen ziren eginkizunen antzeko eginkizunak betetzeko. Beste estatu bateko herritarra izanez gero, desgaituta edo egoera baliokideren batean ez egotea, eta diziplina-zehapenik edo baliokiderik ez izatea, dagokion estatuan baldintza berberetan enplegu publikora iristea eragotziko duenik, hain zuzen.

i) Indarrean dagoen araubidearen arabera, legezko ezintasun- edo bateraezintasun-kausaren batean ere ez egotea; hala ere, araudiak ematen duen aukera-eskubidea errespetatuko da.

j) Langileak hautatzeko deialdietan izena emateagatiko tasa ordainduta izatea, oinarri orokor hauen 5.6 atalean adierazitakoaren arabera.

3.2.2.– Eskola-ziurtagiria izatea eskatzen da.

4.– Argitaratzeko lekuak eta iragarki-taulak.

Hautaketa-prozesuen deialdiak Enplegu Publikoaren Atarian argitaratuko dira, helbide elektroniko honetan: <https://www.euskadi.eus/enplegu-publicoa/>.

Hautaketa-prozesuan zehar, aipatutako helbide elektronikoan argitaratuko da prozesuaren garapenaren alderdiekin lotutako informazio guztia, jakinarazpen-ondorioetarako. Abisu bat bidaliko zaie, SMS edo posta elektroniko bidez, telefono mugikorraren zenbakia edo helbide elektronikoa eman duten parte-hartzaileei. Hala ere, abisu hori bidaltzen ez bada ere, jakinarazpena guztiz baliozkoa izango da, hala xedatuta baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41.6 artikuluan.

Informazio hori, halaber, Giza Baliabideen Zuzendaritzako SAZLko Langileen bulegoan ere egongo da eskuragarri, Erandion.

5. – Prozesuan onartua izatea. Eskabideak eta tasaren ordainagiria aurkeztea.

5.1.– Prozesuan onartua izatea.

Parte hartu nahi dutenek eskabide bat aurkeztu beharko dute nahi duten hautaketa-prozesu bakoitzeko.

Onartuak izateko eta, hala badagokio, hautaketa-prozesuetan parte hartzeko, hau egin beharko dute:

- 1) Eskabidearen atal guztiak bete.
- 2) 5.5 atalean adierazitako dokumentuak eskabideari erantsi.
- 3) Eskabidea epe barruan aurkeztu, eta
- 4) Langileak hautatzeko deialdietan izena emateagatiko tasa ordaindu

Halaber, eskabidea aurkezteko epea amaitzen den egunean bete beharko dira eskatutako baldintza guzti-guztiak.

5.2.- Eskabideak aurkezteko eta langileak hautatzeko deialdietan izena emateagatiko tasa ordaintzeko epea.

Hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabideak 20 egun balioduneko epean aurkeztu ahal izango dira, deialdien oinarriak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Tasak epe berean ordaindu beharko dira.

5.3.– Nola eta non aurkeztu eskabideak.

Eskabideak bitarteko elektronikoen bidez edo SAZLko Langileen Arloan paperean aurkeztu beharko dira; arlo horrek eskabidea modu digitalean egiten lagunduko du.

Eskabideak elektronikoki aurkezteko, Enplegu Publikoaren Atariko helbide elektronikoa erabili beharko da (<https://www.euskadi.eus/enplegu-publikoa/>). Eskabidea betetzen joan ahala ematen diren jarraibideak bete behar dira. Horretarako, nork bere burua identifikatu beharko du, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean onartutako edozein bitartekoren bidez (<https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>), edo, eskabidea bete ondoren, aplikazioak berak ematen duen aldi baterako erabiltzailearen bidez. Aldi baterako erabiltzaile hori eskabidea kontsultatzeko bakarrik erabili ahal izango da. Gainerako izapideak egiteko, beharrezkoa izango da identifikazio elektronikorako onartutako bitartekoren bat edukitzea.

Paperezko eskabideak Segurtasun Sailaren Giza Baliabideetako SAZLko Langileen bulegoan aurkeztu ahal izango dira, Erandion. Bertan, izapideak elektronikoki egiteko laguntza emango da.

Inskripzio-prozesuan gorabehera teknikoren bat gertatuz gero, Enplegu Publikoaren Atarian horretarako adieraziko den telefonora edo helbide elektronikora jo ahal izango dute: <https://www.euskadi.eus/enplegu-publikoa/>.

5.4.– Eskabidea ordezkari batek aurkeztea.

Parte hartzeko eskabidea ordezkari batek elektronikoki aurkezteko, ahalordeen erregistro elektronikoan inskribatu beharko da aldez aurretik (<https://www.euskadi.eus/ahalordeen-erregistro-elektronikoa/web01-sede/eu/>).

5.5.- Zer dokumentu aurkeztu behar diren eskabidearekin batera.

a) Organo eskudunak emandako egiaztagiria edo aitortpena. Bertan egiaztatuta geratu behar da % 33ko edo hortik gorako adimen-desgaitasuna izatea.

Hala ere, ez dute ziurtagiri hori aurkeztu beharko Arabako, Gipuzkoako edo Bizkaiko foru-aldundiek desgaitasuna aitortu dieten izangaiek, baldin eta Administrazioari berariaz baimena eman badiote parte hartzeko eskabidean, egiazta dezan.

b) Ordezkaritzaren egiaztagiria, eskatzailearen izenean jardunez gero.

c) Eskola-ziurtagiria.

5.6–Zenbat eta nola ordaindu langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa.

Izena emateko tasa 20,27 eurokoa da.

Ordaintzeko bi modu daude:

a. Lineako ordainketa.

Zenbatekoa ordainketa-pasabidearen bitartez ordainduko da, egoitza elektroniko honetan: <https://euskadi.eus/nireordainketa>.

Ordaintzeko modu hori egunean 24 orduz egongo da erabilgarri, eta ezinbestekoa izango da banka elektronikoko bezero izatea hauetako entitatearen batean: Kutxabank, Laboral Kutxa, Caixabank, Banco Santander, BBVA, Sabadell Guipuzcoano, Bankia, Bankoa, Rural Kutxa. Halaber, Bizum bidez ere ordaindu ahal izango da, edo Visa edo Mastercard txartelen bidez.

b. Lineaz kanpoko ordainketa.

Ordainketa-gutun inprimatua hartuta, banketxe hauetako edozein sukurtsaletara joan daiteke ordaintzera; gainera, barra-kodearen irakurgailua duten edo datuak eskuz hartzen dituzten kutxazain automatikoetan ere ordain daiteke.

Era berean, badago aukera ordainketa-gutunean ageri den QR kodea eskaneatzeko, telefono mugikor batetik, eta, horrela, automatikoki ordainketa-pasabidera sartu.

Ez da beharrezkoa ordainagiria Administrazioari bidaltzea, finantza-erakundeek automatikoki bidaliko baitituzte ordainketa-datuak.

5.7.– Eskabidea garaiz eta behar bezala aurkezten ez bada, prozesutik kanpo geldituko da.

Era berean, tasa ez ordaintzeak prozesutik kanpo uztea ekarriko du.

Tasa ordaintzea ez da nahikoa izango prozesuan parte hartzeko; eskabidea behar bezala eta emandako epean aurkeztu behar da, oinarri honetako aurreko ataletan adierazitakoari jarraituz.

Eskabidean akatsik bada edo tasarako ordaindutako zenbatekoan akatsik bada, interesdunari hamar eguneko epea emango zaio akatsa zuzentzeko.

5.8.– Izangaiek eskabidean eskatu beharko dute ariketak egiteko denbora eta baliabideak egokitzeko, hala nahi badute.

6.– Onartutakoen eta baztertutakoen zerrendak.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu eta gehienez ere hilabeteko epean, Giza Baliabideen Zuzendaritzak ebazpena emango du onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrendak argitaratzeko agintzeko 4. oinarrian adierazitako lekuetan. Zerrenda horietan baztertzeko arrazoia adieraziko da.

10 egun balioduneko epea emango da erreklamazioak aurkezteko eta eskabideetako akatsak zuzentzeko, aipatutako ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Erreklamazioak aurkezteko epea igarota eta horiek ebatzita, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da Giza Baliabideen Zuzendaritzak onartutako eta baztertutako pertsonen behin betiko zerrendak onartzen dituen ebazpena adierazten duen iragarkia, eta adieraziko da zerrenda horiek ikusgai egongo direla 4. oinarrian adierazitako lekuetan.

Ebazpen horretan, gainera, izangaiei lehen ariketa egiteko deia egingo zaie.

7.– Hautaketa-prozedura.

7.1.– Hautaketa-sistema oposizioa izango da. Bi ariketa egin beharko dira nahitaez, eta baztertzailleak izango dira. Hala badagokio, oposizioaldian lortutako puntuazioari euskara jakiteari dagokion puntuazioa gehituko zaio, baldin eta izangaia 1. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzen badu, 7.4 atalean adierazten den moduan.

7.2 .- Oposizioko ariketak.

a) Lehenengo ariketa.

Bi prozedurek ariketa komun bat izango dute, hau da, teorikoa. 30 galderako sorta bat izango da, gehi erreserbako 3 galdera. Galderek hiruna erantzun-aukera izango dituzte, baina bat bakarrik izango da baliozkoa, eta Agindu honen II. eranskineko gai-zerrendako zati orokorrari buruzkoak izango dira.

Gehienez 60 puntu lor daitezke. Baztertuta geratuko dira ariketan 30 puntu lortzen ez dituzten izangaia.

Erantzun okerrekin eta erantzun zuriak ez dute zigorrik izango. Erantzun bat baino gehiago idazteak ez du izango ez zigorrik ez punturik emango.

b) Bigarren ariketa.

Prozesu bakoitzerako, bigarren ariketa bat egingo da, nahitaezkoa eta baztertzailea, bat Mendeko lanposturako eta beste bat Ostalaritzako laguntzaile lanposturako.

Prozesu bietan parte hartzen dutenek bi ariketak egin beharko dituzte. Aipatutako ariketa horiek programatzeko orduan, aukera emango zaie izangaiei bietara aurkeztu ahal izateko, hala nahi badute.

Teorikoa eta praktikoa izango da, eta 15 galderako sorta bat izango da, gehi erreserbako 3 galdera. Galderek hiruna erantzun-aukera izango dituzte, baina bat bakarrik izango da baliozkoa, eta lanpostuetako zereginei loturikoak izango dira, oinarri espezifikoetako gai-zerrenda espezifikoaren esparruan.

Gehienez 30 puntu lor daitezke. Baztertuta geratuko dira ariketan 15 puntu lortzen ez dituzten izangaia.

Erantzun okerrekin eta erantzun zuriak ez dute zigorrik izango. Erantzun bat baino gehiago idazteak ez dute izango ez zigorrik ez punturik emango.

7.3.– Izangaiei ariketak prestatzen laguntzeko, Enplegu Publikoaren Atarian (<https://www.euskadi.eus/enplegu-publikoa/>) eta Erandioko SAZLko Langileen bulegoetan argibide hauek emango dira:

- 1) Zer lanpostu eskura daitezkeen
- 2) Gai-zerrenda orokorra eta espezifikoak, eta gai garatuak.

Epaimahaiak, ariketa bakoitza egin ondoren eta behar den erabakia hartuta, erantzun zuzenak argitaratuko ditu 4. oinarri orokorrean adierazitako lekuetan.

7.4.– Euskararen hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea.

Deialdiko lanpostuek 1. hizkuntza-eskakizuna daukate esleituta, baina ez da derrigorrezkoa; horren ondorioz, eskakizun horri dagokion euskararen ezagutza egiaztatuz gero, merezimendu gisa baloratuko da 4,5 punturekin.

Euskararen ezagutza honela egiaztatu ahal izango da:

a) Borondatezko proba gaindituta. Proba bat egingo da, 1. hizkuntza-eskakizuneko euskararen ezagutza egiaztatzeko bakarrik.

Epaimahaiak emango du aditzera euskara-proba noiz egingo den, baina, edonola era, bigarren ariketa bukatu ondoren egingo da.

Proba hori egin nahi dutenek hala adierazi beharko dute hautaketa-prozesuaren onarpen-eskabidean.

b) Giza Baliabideen Zuzendaritzak ETZEB-Euskara Tituluaren eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan kontsultatuta. Hizkuntza-eskakizun egiaztatutzat joko dira aurreko letran aipatutako 1. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko proba egin baino lehen erregistro horretan inskribatutakoak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko eta haren organismo autonomoetako hizkuntza-eskakizunen baliokide diren ziurtagiri eta tituluak dekretu hauetan zehaztuta daude: 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, Euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena, eta 47/2012 Dekretua, apirilaren 3koa, Euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzenetik salbuesteko dena.

7.5.– Proben garapena.

Bi prozesuetan komuna den oposizioaldiko lehenengo ariketa egiteko eguna zehaztuta egongo da Giza Baliabideen Zuzendaritzak onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrendak onartzeko ematen duen ebazpenean.

Lehenengo ariketa bukatuta, epaimahaiak behin-behineko emaitzak argitaratuko ditu, eta 10 egun balioduneko epea emango du erreklamazioak egiteko. Erreklamazioak egiteko epea amaitu eta erreklamazioak ebatzita, epaimahaiak behin betiko emaitzak argitaratuko ditu.

Lehenengo ariketako behin betiko emaitzekin batera, epaimahaiak deialdi bakoitzeko bigarren ariketa egiteko deialdia egingo du. Bigarren ariketa horiek egun berean egingo dira, eta hala eskatu duten izangaiei bi ariketak egiteko aukera izatea ahalbidetzeko moduan programatuko dira.

Bigarren ariketa horiek egin ostean, epaimahaiak behin-behineko emaitzak argitaratuko ditu, eta 10 egun balioduneko epea emango du erreklamazioak egiteko. Epe hori amaitu eta erreklamazioak ebatzita, epaimahaiak behin betiko emaitzak argitaratuko ditu.

Emaitzak 4. oinarrian adierazitako lekuetan argitaratuko dira.

Oposizioaldiko ariketetan eta 1. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko proban parte hartzen duten izangaiei deialdi bakarra egingo zaie ariketa egiteko. Epaimahaiak, hautaprobeen garapenean aukera- eta tratu-berdintasuna bermatzeko xedez, probetarako deialdien baldintzak egokitu ahal izango ditu, hautagairen bat bertaratu ezin bada haurdunaldia, erditzea edo ezinbesteko kasuak direla eta. Ahal dela, proba egin baino lehen eman beharko zaio epaimahaiari egoera horien berri, eta justifikazio-agiriak erantsi.

Epaimahaiak ariketak egiteko denbora eta baliabideak egokituko dizkie egokitzen behar eta eskabidean hala adierazi duten izangaiei. Horrela, aukera-berdintasunez arituko dira gainerako parte-hartzaileen aldean; hala ere, hori eginda inoiz ez da probaren edukia desitxuratu behar, ezta eskatutako gaitasun-maila jaitsi edo okerragotu ere.

Hautaprobak egitera bertaratu daitezke bai prozesuan onartuta daudenak, bai egiaztatzen dutenak oraindik ebatzteke dagoen errekurso administratiboa jarri dutela, baztertu gisa azaldu arren. Nork bere burua identifikatzeko, nortasun-agiri nazionala, pasaportea edo gidabaimena eraman beharko du probetara.

8.– Azken kalifikazioa.

8.1.– Deialdiko prozesu bakoitzean izangai bakoitzaren azken kalifikazioa zehazteko, kontuan hartuko dira oposizioaldiko ariketetan lortutako puntuazioen batura eta egiaztatutako hizkuntza-eskakizunaren balorazioa.

Zerrenda bat egingo da deialdi bakoitzeko, eta zerrenda horren ordena erabakigarria izango da lanpostuak esleitzeko.

8.2.– Berdinketak hausteko irizpideak.

Berdinketarik izanez gero, lehentasun-hurrenkera ezartzeko, irizpide hauek aplikatuko dira bata bestearen ondoren:

- Bigarren ariketako puntuaziorik handiena.
- Lehenengo ariketako puntuaziorik handiena.
- Bigarren ariketako erantzun oker gutxiena.
- Lehenengo ariketako erantzun oker gutxiena.
- Abizenen eta izenen ordena alfabetikoa, Langileak Kudeatzeko zuzendariak ebazpenez zehaztu duen letratik aurrera. Ebazpen hori 2025eko martxoaren 6ko Euskal Herriko Agintaritzaren

Aldizkarian argitaratu zen eta, haren bidez, aditzera eman da zer letra atera den zozketan, 2024-2025eko ikasturtean ordezkogaiak kudeatzeko prozesuan.

9.- Destinoak esleitzea. Hautatutako pertsonen zerrenda.

Hautagai berak bi lanpostuetan puntuazio handiena lortzen badu, bi lanpostuetatik zein esleitzea nahi duen zehazteko deituko zaio.

Epea amaitutakoan, Giza Baliabideen zuzendaritzak prozesuen behin-behineko azken kalifikazioak argitaratuko ditu, 8. oinarriaren eta hautatutako pertsonen eta esleitu beharreko lanpostuen behin-behineko zerrenden arabera, izangai bakoitzaren puntuazio-ordenaren arabera, eta erreklamazioak egiteko 10 egun balioduneko epea ezarriko du.

Erreklamazioak aurkezteko epea igarota eta horiek ebatzita, Giza Baliabideen Zuzendaritzaren ebazpena argitaratu dela adierazten duen iragarkia argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian. Iragarki horretan adieraziko da hautatutako pertsonen eta esleitutako lanpostuen behin betiko zerrendak ikusgai egongo direla 4. oinarrian adierazitako lekuetan.

10.- Lanpostuan hasteko aukera eta erantzukizunpeko adierazpenak aurkeztea.

Hautatutako pertsonen behin betiko zerrenda argitaratu ondoren, pertsona horiek lanpostuan hasteko hautatu duten aukera adierazi beharko dute, bai eta Administrazioak eskatutako erantzukizunpeko adierazpenak ere, Giza Baliabideen Zuzendaritzak eskatutako dokumentuekin batera. Prozeduran zehar modu frogagarrian egiaztatu ez den dokumentazioa edo prozeduran zehar eskatzaileen baldintza pertsonalei buruzkoa baino ez da aurkeztu beharko.

10.1.- Dokumentuek bete beharreko baldintzak.

Aurkeztu beharreko dokumentuek jatorrizkoak izan behar dute, edo, bestela, lokalizatzailerak edo sinadura elektronikoa duten dokumentuak, hau da, dokumentu aldaezinak.

Dokumentazioa Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetako batean aurkeztu beharko da. Dokumenturen bat beste hizkuntza batean idatzita badago, zinpeko itzulpena erantsi beharko zaio dokumentu horri.

Eskatutako dokumentu guztiak aurkeztu ezina behar bezala arrazoitzen bada, hautagaiak zuzenbidean onartzen den edozein frogabide erabili ahal izango du deialdiko baldintza guztiak betetzen dituela egiaztatzeko.

10.2.- Dokumentazioa aurkezteko lekua eta epea.

Fase honek 10 eguneko iraupena izango du, hautatutako pertsonen behin betiko zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

10.3.– Aitorpenak aurkeztu ez izanaren ondorioak.

Ezin izango da langile lan-kontratudun izendatu adierazitako epean dokumentuak aurkezten ez dituen inor; behar bezala egiaztatutako ezinbesteko kasuetan izan ezik, Giza Baliabideen zuzendaritzak aztertuko dituena, ezta aurkeztutako dokumentuen azterketaren arabera eskakizunen bat betetzen ez duen inor ere. Kasu horietako bat gertatuz gero, jarduketa guztiak deuseztatuko dira, eta, gainera, baliteke hautagaiak eskabidea faltsutzeagatik erantzukizuna izatea.

11.- Lanpostuaz jabetzea eta langile lan-kontratudun finko gisa kontratatzea.

11.1.– 10. oinarrian xedatutakoa bete duten pertsona hautatuak Segurtasun Administrazioako langile lan-kontratudun finko bihurtuko dira, esleitu zaien lanpostuaren arabera.

11.2.- Langile lan-kontratudun finko gisa kontratatzea.

Dokumentazioa aurkezteko epea amaitutakoan, Giza Baliabideen Zuzendaritzaren ebazpena argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian. Ebazpen horren bidez, Segurtasuneko sailburuordeari eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiari aurkeztuko zaizkie dagokion lan-kontratua formalizatzeko hautatutako pertsonen eta esleituko diren lanpostuen behin betiko zerrendak.

Hautatutako pertsonak ebazpen horretan ezartzen den egunean sinatu beharko du lan-kontratua. Aipatutako lan-kontratuari Segurtasun Sailaren eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren langile lan-kontratudunen hitzarmen kolektiboan ezarritako baldintzak aplikatuko zaizkio.

Ezarritako epean, eta ezinbesteko kasuetan izan ezik, kontratua sinatzen ez dutenek galdu egingo dituzte Segurtasun Saileko eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako langile lan-kontratudun finko izateko eskubide guztiak, deialdiaren ondoriozkoak.

12.- Epaimahaia.**12.1.- Osaera.**

Epaimahaiak kide hauek izango ditu: epaimahaiburua, hiru bokal edo gehiago –betiere, kopuru bakoitia izaki– eta idazkaria, eta ordezkioak.

Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 22.4 eta 81.11 artikuluetan xedatutakoaren arabera, epaimahaikideetako bat IVAPen ordezkaria izango da. Horretarako, aipatu erakundeari eskatuko zaio epaimahaikide gisa jarduteko titularra eta haren ordezkia izenda ditzala.

Era berean, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 189.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, IVAPen ordezkari bat epaimahaikidea izango da 1. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko proban.

Epaimahaia modu orekatuan osatuko da, trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen arteko orekan, salbu eta behar bezala justifikatzen bada hori egitea ez dela egokia. Ordezkaritza orekatutzat hartuko da lau kide baino gehiagoko organoetan sexu bakoitzak gutxienez % 40ko ordezkaritza badauka, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko legearen testuategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 21. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz. Epaimahaiak, hala komeni dela uste badu, aukera izango du adituei aholkua eskatzeko. Pertsona horiek beren espezialitate teknikoen gaineko aholkuak eman besterik ez dute egingo epaimahaiarekiko lankidetzan.

Epaimahaikide-lana modu indibidualean egingo da beti, eta ezin izango da inoren izenean edo inoren ordezkari gisa aritu.

12.2. – Izendapena.

Giza Baliabideen zuzendariaren ebazpenaz izendatuko dira epaimahaikideak. Izendapenak adierazten dituen iragarkia eta onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira.

12.3.- Abstenitzea eta errekusatzeta.

Epaimahaikideek ezin izango dute prozesuan parte hartu Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan ezarritako kasuetan, eta, halakoetan, horren berri eman beharko diote Giza Baliabideen Zuzendaritzari. Horrez gain, ezin izango dute parte hartu, baldin eta deialdia argitaratu aurreko bost urteetan hautaprobetan parte hartuko duen hautagairen bat prestatzen jardun badute.

Halaber, aurreko kasuren bat gertatzen denean ere, interesdunek noiznahi izango dute aukera epaimahaikideak errekusatzeko, aipatutako legearen 24. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

12.4.- Jarduteko arauak.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15. artikulutik 18. artikulura bitartean ezarritako arauen arabera jardungo du epaimahaiak. Nolanahi ere, epaimahaiburuak aginduta eta idazkariak bilerarako deia eginda bilduko da epaimahaia, hautaprobak hasi baino behar besteko denbora lehenago, eta, balio osoz eratzeko, beharrezkoa izango da epaimahaiburua eta idazkaria (edo, hala badagokio, haien ordezkariak) eta gutxienez bokalen erdiak bertaratzea.

Epaimahaikide guztiek izango dituzte hitza eta botoa.

Epaimahaiaren erabakiak botoen gehiengoaren bidez hartuko dira. Epaimahaiburuaren kalitatezko botoaren bidez ebatziko dira berdinketak.

Epaimahaiburua (edo haren ordezkoa) bertaratu ez bada, gaixo dagoelako, kargua hutsik dagoelako edo bestelako lege-arrazoiren bat dagoelako, antzintasun handiena duen edo adinez zaharrena den epaimahaikideak hartuko du haren lekua, hurrenkera horretan.

Idazkaria (edo haren ordezkoa) bertaratu ez bada, gaixo dagoelako, kargua hutsik dagoelako edo bestelako lege-arrazoiren bat dagoelako, epaimahaikideen gehiengoaren erabakiaren bidez aukeratzen den epaimahaikideak hartuko du haren lekua.

12.5.- Ahalmenak.

Epaimahaiak autonomia funtzional osoz jardungo du, eta bera izango da prozeduraren gardentasunaren eta objektibotasunaren, proben edukiaren eta konfidentzialtasunaren eta deialdiko oinarriak zorrotz betetzearen erantzulea.

Halaber, ordenamendu juridikoarekin bat etorriz, batetik, oinarri hauek eta oinarri espezifikoak aplikatzeko sortzen diren zalantza guztiak ebartziko ditu; bestetik, deialdia behar bezala garatzeko behar diren erabakiak hartuko ditu, eta, azkenik, behar diren irizpideak ezarriko ditu oinarrietan aurreikusi ez diren kasuetarako.

Epaimahaiburuak behar diren neurriak hartuko ditu oposizioaldiko ariketen edukia isilpean gordetzen dela bermatzeko, eta gauza bera egingo du azterketak zuzendu daitezen zein izangairenak diren jakin gabe.

12.6. – Egoitza.

Erreklamazioak elektronikoki aurkeztuko zaizkio epaimahaiari, eta, horretarako, Enplegu Publikoaren Atarian, helbide elektroniko honetan dagoen inprimakia bete beharko da: <https://www.euskadi.eus/enplegu-publikoa/>.

Era berean, 4. oinarrian adierazitako Giza Baliabideen Zuzendaritzako Erandioko SAZLko Langileen bulegora joanda egin ahal izango dira erreklamazioak.

Jakinarazpenetarako eta gainerako gorabeheretarako, epaimahaiak Erandioko egoitza nagusian izango du helbidea: Larrauri Mendotxe bidea 18, 2. solairua, 48950 Erandio.

12.7.- Zerbitzuaren ondoriozko kalte-ordainak.

Epaimahaikideek dagozkien kalte-ordainak jasoko dituzte beren zerbitzuagatik, bertaratzeak barnean hartuta, esparru honetako indarreko araudiarekin bat etorriz.

Dagozkien kalte-ordainak jasoko dituzte, era berean, epaimahaiari aholkularitza ematen dioten edo zaintza lanetan edo laguntza materialean laguntzen dioten pertsonak.

13.- Lan-poltsak.

Hautaketa-prozesua amaitzean, lan-poltsa bat sortuko da lanpostu mota bakoitzeko: Mendekoen lan-poltsa bat eta Ostalaritzako Laguntzaileen beste lan-poltsa bat ere bai.

Lan-poltsa horietan sartuko dira lanpostu mota bakoitzari dagokion hautaketa-prozesuan gainditu baina hautatu ez diren izangaiak, hautaketa-prozesuan lortutako ordena eta puntuazio berarekin.

Segurtasun Administrazioako aldi baterako zerbitzuak emateko langile lan-kontratudunen hautaketa arautzen duen Segurtasuneko sailburuaren 2001eko martxoaren 1eko Aginduak arautuko ditu lan-poltsa horiek.

14.- Hautaketa-prozesuko datuen babesa eta kudeaketa.

Behar bezala betetzeko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, Datu pertsonalen tratamenduaren eta datu horien zirkulazio askeari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa (Datu Orokorraren Erregelamendua) abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babestu eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa, eta datuen babesaren arloan indarrean dagoen gainerako araudia, datu pertsonalak «Hautaketa-prozesuak» izeneko tratamendu-jardueran sartuko dira.

– Tratamenduaren arduraduna: Giza Baliabideen Zuzendaritza. Segurtasun Saila.

– Tratamenduaren helburua eta aurreikusitako erabilerak: enplegu publikora sartzeko prozesuak kudeatzea eta Segurtasun Saileko eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako langile lan-kontratudunen lanpostuen behin-behineko esleipenak kudeatzea. Segurtasun Saileko eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako aldi baterako lan-eskaintzen lan-poltsak (eraketa, integrazioa eta birbaremazioa) nahiz langile lan-kontratudunen kontratazioa kudeatzea.

– Legitimazioa: tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak erabiliz egindako misio bat betetzeko (6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa; 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legea onartzen duena; 2/2018 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 23koa, Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena).

– Informazio-hartzaileak:

- Sindikatuak eta langileen arloak.
- Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.
- Lan-poltsetan dauden langileen datuak Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio publiko batzuei eta sektore publikoko entitateei eman ahal izango zaizkie.

– Eskubideak: datuetarako irispidea izatea, datuak zuzentzea eta ezerezteia, eta informazio gehigarrian azalduta dauden beste zenbait eskubide.

– Informazio gehigarria: web-orri honetan kontsultatu dezakezu datu-babesari buruzko informazio gehigarri zehatza:

www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/128100-cap2-eu.shtml

II.- MENDEKO PLAZARAKO OINARRI ESPEZIFIKOAK

15.- Deitutako plaza.

Mendeko lanpostuaren plaza 1 deitzen da, txanda irekian, 3732/1 kodea eta dotazioa duena, eta derrigorrezko hizkuntza-eskakizunik ez duena. Halaber, ezaugarri hauek ditu:

Sartzeko modalitatea: adimen-desgaitasunaren txanda

Plazaren ezaugarriak:

Izendapena: Mendekoa

Saila: Segurtasuna

Zuzendaritza: Giza Baliabideen Zuzendaritza

Udalerria: Erandio

Ordainsari-maila: 2

Hizkuntza-eskakizuna: 1

Derrigortasun-data: datarik gabe

16.- Deitutako lanpostuko eginkizunak.

- Hartzaileei dokumentazioa helaraztea.
- Ekipamenduak, altzariak eta materiala garraiatzea.
- Biltegian jasotako materiala garraiatzen eta kokatzen laguntzea.
- Korrespondentzia eta dokumentazioa jasotzea eta sailkatzea.
- Fotokopiak egitea eta dokumentazioa koadernatzea, arduradunak hala eskatzen duenean.
- Dokumentazioa eta espedienteak artxibatzen laguntzea.
- Materiala jasotzea, egiaztatzea eta sailkatzea, konpontzeko, garbitzeko, suntsitzeko edo biltegian edo artxihoan birkokatzeko.
- Paketeak egitea, gutun-azaletan sartzeko, materiala paketatzea...

- Paletak kargatzea eta leku batetik bestera mugitzea.
- Erabiltzaileei materiala ematea.
- Aretoak eta bulegoak prestatzea.
- Instalazioak eta bulegoak irekitzea eta ixtea.
- Instalazioak zaintzea.
- Telefonoguneko zereginetan laguntzea.

17.- Gai-zerrenda espezifikoak.

- 1.- Lantokiko intzidentziak. Zereginak. Aretoak eta bilerak prestatzea, anomaliak eta intzidentziak.
- 2.- Mandatuak. Mandatuen erregistroa. Jarraibide eta jakinarazpen pertsonal eraginkorrak interpretatzea.
- 3.- Ofimatikako oinarrizko makinak erabiltzea: Dokumentuen erreprografia: fotokopiagailua, plastifikagailua, eskanerra, inprimagailua, orriak josteko makina, eta grapagailua. Fotokopiatresnak maneiatzea. Maizen azaldutako anomaliak. Enkargua. Laneko segurtasun-arauak eta ingurumena babestekoak.
- 4.- Paketeak, dokumentuak eta biltegiko materiala jaso, banatu eta entregatzea.
- 5.- Lan-arriskuen prebentzioa. Oinarrizko kontzeptuak. Eskubideak eta betebeharrak.

III.- OSTALARITZAKO LAGUNTZAILE PLAZARAKO OINARRI ESPEZIFIKOAK.

18.- Deitutako lanpostua.

Ostalaritzako Laguntzailearen lanpostuaren plaza 1 deitzen da, txanda irekian, 3161/13 kodea eta dotazioa duena, eta derrigorrezko hizkuntza-eskakizunik ez duena. Halaber, ezaugarri hauek ditu:

Sartzeko modalitatea: adimen-desgaitasunaren txanda

Plazaren ezaugarriak:

Izendapena: Ostalaritzako Laguntzailea

Saila: Polizia eta Larrialdien Euskal Akademia

Zuzendaritza: Administrazio eta Zerbitzuen Zuzendaritza

Udalerrria: Vitoria-Gasteiz

Ordainsari-maila: 2

Hizkuntza-eskakizuna: 1

Derrigortasun-data: datarik gabe

19.- Deitutako lanpostuko eginkizunak.

1. Eguneko menuko plater bakoitza egiteko beharrezkoak diren lanak egiten laguntzen du, sukaldeko buruak emandako jarraibideen arabera, eguneko menuaren arabera eta lan egiten duen txandaren arabera. Horretarako hurrengo lan hauek egin behar ditu:
 - Plater bakoitza egiteko beharko diren tresnak antolatzea (baskulagarriak, rondoak, labeak, etab.).
 - Plater bakoitzean erabili beharreko lehengaiak sukaldean jartzeko prozesua antolatzea, elikagaiak manipulatzeko erabili beharreko lehengaien eta gozagarrien (letxuga, tomatea, txitxirioak, gatza, olioak, etab.) kantitateak kalkulatu, guztia eskura eta prest izateko.
 - Elikagaiak prestatu aurreko lanak zaintzea eta bideratzea (tipulak, baratxuriak, patatak zuritzea, arraina garbitzea, etab.), eta beste lan batzuk egitea, hala nola frijituak, saltsak, saldak, oreak, etab., hurrengo egunerako prestatzea.
 - Elaborazio errazeko platerak prestatzea dagokion tresnarekin (frijitzea, erretzea, kozinatzea...), haien garapena zainduz, behar den kalitate-puntua lortzeko.

- Gauzatze materialean laguntzea, hala badagokio, plater bakoitzaren azken fasean (platerak berotzea, plantxa), jantokiko autozerbitzua hornitzeko kantitatean (zerbitzuaren ordutegian iristen diren jankideen kopuruaren arabera) eta kalitatean (tenperatura).

2. Materiala jasotzen du garbitzeko eta hurrengo zerbitzuan erabiltzeko prest jartzen du.
3. Inprimaki batean idazten ditu menuak egiteko erabilitako genero kantitateak.
4. Kafetegirako banderillak prestatzen ditu, baita Brigada Mugikorrerako eta Trafikorako ogitarteko-poltsak (bazkariak) ere.

20.- Gai-zerrenda espezifikoa.

- 1.– Ostalaritzako laguntzailearen zereginak. Sukaldeko makinak, tresnak eta altzariak.
- 2.– Elikagaiak: haragiak, hegaztiak, arrainak, esnekiak, barazkiak, arrautzak, lekariak, fruituak, zerealak, koipeak, azkenburukoak. Elikagai freskoak garbitu eta prestatzea. Elikagai-kutsadura.
- 3.– Laneko higieena eta garbitasuna. Sukaldeko makinak, tresnak eta altzariak garbitzea. Zaborrak eta hondakinak kudeatzea. Garbiketa eta desinfekzioa.
- 4.– Jantokia: jantokia antolatzeke oinarritzko teknikak; jantokietan erabiltzen diren tresnak; mahaia prestatzea, eta jantokia jaso eta garbitzea.
- 5.– Ostalaritzako laguntzailearen lanetako segurtasuna eta lan-arriskuak. Arriskuak eta kontrolguneak. Sute-arriskua: prebentzio-neurriak eta jarduketak.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

SEGURTASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

Adimen-desgaitasuna duten pertsonak enplegu publikoan sartzeko hautaketa-prozesuaren oinarriak

Deialdiaren oinarriak hautaketa-proba hauetan parte hartzeko behar dituzun arau eta betekizun guztiak dira.

Deialdiaren oinarrietan honako atal hauek aurkituko dituzu:

1. Deialdiak eta lanpostuak
2. Lanpostuen eginkizunak
3. Betekizunak
4. Argitalpenak eta iragarki-taulak
5. Prozesuan onartzea. Eskabideak aurkeztea eta tasak ordaintzea.
6. Hautaprobak
7. Azken puntuazioa
8. Hautatutako pertsonak
9. Lan-poltsak
10. Identifikazio elektronikorako bitartekoak

Informazio gehiago:

Erandioko SAZLko langileak

Telefona: 945 017 600

Orduategia: 8:00 -15:00 (astelehenetik ostiralera)

Posta elektronikoa: epe-segurtasuna@seg.euskadi.eus

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

SEGURTASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

1. Deialdiak eta lanpostuak

Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Administrazioak 2 lanpostu eskaintzen ditu.

Hona hemen lanpostu horiek:

- Mendeko lanpostu 1 Segurtasun Sailerako. Lanpostu hori lan-kontratu finkoko kategorian sartzen da.
- Ostalaritzako laguntzaile lanpostu 1 Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiarako. Lanpostu hori lan-kontratu finkoko kategorian sartzen da.

Nor kontratatuko den erabakitzeko, hautaketa-proba batzuk egingo dira, eta aurkezten direnei puntuak emango zaizkie. Puntuazio handiena duten pertsonak lortu ahal izango dituzte lanpostuak.

Pertsonak bi hautaprobetan eman dezakete izena. Hau da, Mendekoaren probetan eman dezakezu izena, baita Ostalaritzako Laguntzailearen probetan ere.

Euskara ez da nahitaezkoa hautaketa-probak egiteko, baina merezimendu gisa baloratuko da. Hau da, puntu gehiago gehituko zaizkie euskararen 1. hizkuntza-eskakizuna duten pertsonari. 6. atalean informazio gehiago dago.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

SEGURTASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

2. Lanpostuen eginkizunak

Hauek dira **MENDEKO** lanpostuaren zeregin nagusiak:

- Hartzaileei dokumentazioa helaraztea.
- Ekipamenduak, altzariak eta materiala garraiatzea.
- Biltegian jasotako materiala garraiatzen eta kokatzen laguntzea.
- Korrespondentzia eta dokumentazioa jasotzea eta sailkatzea.
- Fotokopiak egitea eta dokumentazioa koadernatzea, arduradunak hala eskatzen duenean.
- Dokumentazioa eta espedienteak artxibatzen laguntzea.
- Materiala jasotzea, egiaztatzea eta sailkatzea, konpontzeko, garbitzeko, suntsitzeko edo biltegian edo artxiboan birkokatzeko.
- Paketeak egitea, gutun-azaletan sartzea, materiala paketatzea...
- Paletak kargatzea eta leku batetik bestera mugitzea.
- Erabiltzaileei materiala ematea.
- Aretoak eta bulegoak prestatzea.
- Instalazioak eta bulegoak irekitzea eta ixtea.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

SEGURTASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

- Instalazioak zaintzea.
- Telefonoguneko zereginetan laguntzea.

Hauek dira **OSTALARITZAKO LAGUNTZAILEAREN** lanpostuaren zeregin nagusiak:

1. Eguneko menuko plater bakoitza egiteko beharrezkoak diren lanak egiten laguntzen du, sukaldeko buruak emandako jarraibideen arabera, eguneko menuaren arabera eta lan egiten duen txandaren arabera. Horretarako hurrengo lan hauek egin behar ditu:
 - Plater bakoitza egiteko beharko diren tresnak antolatzea (baskulagarriak, rondoak, labeak, etab.).
 - Plater bakoitzean erabili beharreko lehengaiak sukaldean jartzeko prozesua antolatzea, elikagaiak manipulatzeko erabili beharreko lehengaien eta gozagarrien (letxuga, tomatea, txitxirioak, gatza, olioak, eta abar) kantitateak kalkulatzuz, guztia eskura eta prest izateko.
 - Elikagaiak prestatu aurreko lanak zaintzea eta bideratzea (tipulak, baratxuriak, patatak zuritzea, arraina garbitzea, etab.), eta beste lan batzuk egitea, hala nola frijituak, saltsak, saldak, oreak, etab., hurrengo egunerako prestatzea.
 - Elaborazio errazeko platerak prestatzea dagokion tresnarekin (frijitzea, erretzea, kozinatzea...), haien garapena zainduz, behar den kalitate-puntua lortzeko.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

SEGURTASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

- Gauzatze materialean laguntzea, hala badagokio, plater bakoitzaren azken fasean (platerak berotzea, plantxa), jantokiko autozerbitzua hornitzeko kantitatean (zerbitzuaren ordutegian iristen diren jankideen kopuruaren arabera) eta kalitatean (temperatura).

2. Materiala jasotzen du garbitzeko eta hurrengo zerbitzuan erabiltzeko prest jartzen du.
3. Inprimaki batean idazten du menuak egiteko erabilitako genero kantitateak.
4. Kafetegirako banderillak prestatzen ditu, baita Brigada Mugikorrerako eta Trafikorako ogitarteko-poltsak (bazkariak) ere.

3. Betekizunak

Betekizunak hautaketa-probetan parte hartu ahal izateko bete behar dituzun baldintzak dira.

Horretarako, baldintza hauek bete behar dituzu:

- % 33ko edo hortik gorako adimen-desgaitasuna aitortuta izatea.
- Europar Batasuneko edozein estatu kidetako nazionalitatea izatea. (pertsonek horien senide batzuk ere aurkez daitezke).
- Atzerriarren kasuan, legeko bizilekua Espainian izatea.
- Lanpostuan eskatzen zaizkizun zereginak egiteko gai izatea.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

SEGURTASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

- 16 urte baino gehiago izatea.
- Beste administrazio publiko batzuetatik diziplinaz kaleratu ez izana.
- Lan publikoak egiteko desgaituta ez egotea. Hau da, sektore publikoan lan egitea debekatuta ez izatea, aurreko beste lan batzuetan falta astunen bat egiteagatik.
- Egungo araudiaren arabera, ezintasun edo bateraezintasun legalik ez izatea.
- Deialdiko izen-ematea ordaindu izana, 5. puntuan azaltzen denaren arabera.
- Eskola-ziurtagiria izatea

4. Argitalpenak eta iragarki-taulak

Deialdiei buruzko informazio garrantzitsua ikusteko, esteka hau duzu:
[https://www.euskadi.eus/enplegu-publikoa /](https://www.euskadi.eus/enplegu-publikoa/)

Adibidez:

- Prozesuan parte hartzeko onartu bazaituzte.
- Azterketak noiz diren.
- Azterketen emaitzak.

Informazio hori ikusteko, identifikazio elektronikorako bitarteko bat izan behar duzu, 10. atalean azaltzen den bezala.

Era berean, informazio berri bat noiz dagoen adieraz diezazukete testu-mezu baten bidez, zure telefono mugikorraren zenbakia edo helbide elektronikoa ematen baduzu.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

SEGURTASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

Informazio hori Erandioko Segurtasun Saileko SAZLko Langileen bulegoan ere egongo da eskuragarri.

Bulegoa hurrengo helbidean dago kokatuta:

Erandio, Larrauri Mendotxe bidea 18, 2. solairua.

5. Prozesuan onartzea. Eskabideak aurkeztea eta tasak ordaintzea.

Hautaketa-probetara aurkezteko, hurrengo hau egin beharko duzu:

- Eskaera bete.
- Eskaera eta horrek eskatzen dizkizun dokumentu guztiak entregatu.
- Eskaera entregatu eta inskripzio-tasak ordaindu behar dituzu eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen.

(Inskripzio-tasak dira prozesura aurkeztu ahal izateko ordaindu behar den dirua)

Nola bete eskaera orriak

- Bi eskaera orri daude:
 - . Bat Mendeko lanposturako.
 - . Beste bat Ostalaritzako laguntzaile lanposturako.
- Bi probetara aurkeztu nahi baduzu, bi eskaera orriak bete beharko dituzu.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

SEGURTASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

Nola eta non aurkeztu eskaera:

- Eskabideak elektronikoki aurkeztuko dira. Gainera, paperean aurkez daitezke Erandioko SAZLko Langileen bulegoetan, eta bertan laguntza emango da eskaera elektronikoa egiteko.

Une horretan azalduko zaizu nola ordaindu inskripzioa, eta zure zalantza guztiak argituko dizkizute.

Dokumentu honen amaieran aurkituko dituzu eskaera horiek.

- Eskabideak Internet bidez aurkez daitezke, esteka honetan:

<https://www.euskadi.eus/enplegu-publicoa/>

Eskabidea Internet bidez egin ahal izateko, identifikazio elektronikorako bitarteko bat izan behar duzu, 10. atalean azaltzen den bezala.

Eskaera elektronikoak Segurtasun Sailak Erandion duen SAZLko Langileen bulegoan ere egin daitezke.

Zer dokumentu aurkeztu eskabidearekin batera

- Ehuneko 33ko edo hortik gorako adimen-desgaitasunaren ziurtagiria. Arabako, Gipuzkoako edo Bizkaiko foru-aldundiek aitortu badizute, Segurtasun Sailari baimena eman ahal diozu berak egiaztatzeko.

- Ordezkaritzaren dokumentua. Eskabidea zuk egin beharrean beste inork egiten badizu, dokumentu hori aurkeztu behar duzu.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

SEGURTASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

Nola ordaindu inskripzio-tasa

- Deialdi bakoitzean izena emateko prezioa 20 euro eta 27 zentimo dira.
- Bi probetara aurkeztu nahi baduzu, 2 ordainketa egin behar dituzu.
- Bi modu hauetan ordain dezakezu:

- . Interneteko web-orri honetan:

<https://euskadi.eus/nireordainketa>

- . Banketxe hauetan:

Kutxabank

Laboral kutxa

Caixabank

Banco Santander

BBVA

Sabadell Guipuzcoano

Bankia

Bankoa

Rural kutxa

6. Hautaprobak

Hautaprobak 3 ariketa hauek dira:

1. ariketa: nahitaezkoa eta baztertzailea. Prozesuan segitzeko, aurkeztu eta gainditu egin behar duzu.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

SEGURTASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

2. ariketa: Hau ere nahitaezkoa eta baztertzailea da. Bi ariketa ezberdin hauek daude:

- 1, Mendeko plazarako
- 1, Ostalaritzako Laguntzaile plazarako

Prozesu bietan eman baduzu izena, bi ariketak egin behar dituzu.

Prozesu bakarrera aurkezten bazara, ariketa 1 bakarrik egin behar duzu.

Prozesuan segitzeko, aurkeztu eta gainditu egin behar duzu.

3. ariketa: borondatezkoa eta ez-baztertzailea da.

1. ariketa

Nahitaezkoa eta baztertzailea da

Noiz da ariketa?

- 2025eko irailean izango da.
- Informazioa testu-mezu batean bidaliko dizugu, telefono mugikorraren zenbakia edo helbide elektronikoa ematen baduzu
- SAZLko Langileen Arlora ere dei dezakezu.

Nolakoa da ariketa?

- 33 galdera erantzun behar dituzu.
- Galdera bakoitzak 3 erantzun posible dauzka eta 1 bakarra da zuzena.

EUSKO JAURLARITZA**GOBIERNO VASCO**

SEGURTASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

- Ez da punturik kenduko galderak gaizki erantzuteagatik edo ez erantzuteagatik.
- 33 galderetatik azken 3 galderak erreserbakoak dira.
- Epaimahaiak ariketako 30 galderetako baten bat baliogabetzea erabakitzen badu, erreserbako galderak hartuko dira kontuan.

(Epaimahai pertsona talde bat da, eta pertsona horiek hautaprobetako ariketak zuzenduko dituzte)

Nola puntuatuko da?

- Galdera zuzen bakoitzeko 2 puntu.
- Galdera guztiak ondo erantzuten badi
- Ariketa gainditzeko, 30 puntu edo gehiago behar dituzu.
- Epaimahaiak 1. ariketako notak argitaratuko ditu.
- 1. ariketa gainditu behar duzu, 2. ariketa egin ahal izateko.

Zer gai ikasi?

1. Espainiako 1978ko Konstituzioa: oinarrizko eskubideak eta betebeharrak.
2. Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua.
3. Administrazio publikoa. Langileak: motak eta betebeharrak.
4. Administrazio-prozedura erkidea. Administrazio prozedura erkidearen faseak: hastea, antolatzea, instruitzea eta amaitzea.
5. Emakumeen eta gizonen berdintasuna. Euskara EAEko administrazio publikoetan.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

SEGURTASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

2. ariketa

Nahitaezkoa eta baztertzailea da

Noiz da ariketa?

- 1. ariketa egiten duzun egunean esango dizute.

Nolakoa da ariketa?

- Bi ariketa ezberdin hauek daude:

- 1, Mendeko plazarako
- 1, Ostalaritzako Laguntzaile plazarako

- Prozesu bietan eman baduzu izena, bi ariketak egin behar dituzu.

- Prozesu bakarrean eman baduzu izena, ariketa 1 bakarrik egin behar duzu.

- Ariketak honelakoak izango dira:

- . **18 galdera** erantzun behar dituzu.

- . Galdera bakoitzak **3 erantzun posible** dauzka **eta 1 bakarra da zuzena**.

- . Ez da punturik kenduko galderak gaizki erantzuteagatik edo ez erantzuteagatik.

- . 18 galderetatik azken 3 galderak erreserbakoak dira.

- . Epaimahaiak ariketako 15 galderetako baten bat baliogabetzea erabakitzen badu, erreserbako galderak hartuko dira kontuan.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

SEGURTASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

Nola puntuatuko da?

- Galdera zuzen bakoitzeko 2 puntu.
- Galdera guztiak ondo erantzuten badituzu, 30 puntu lortuko dituzu.
- Ariketa gainditzeko, 15 puntu edo gehiago behar dituzu.
- Epaimahaiak 2. ariketako notak argitaratuko ditu.
- Mendekoaren ariketa eta Ostalaritzako Laguntzailearen azterketa egin badituzu, bi nota izango dituzu.

Zer gai ikasi?

- **Mendekoa** izateko, gai hauek ikasi behar dituzu:
 - 1.– Lantokiko intzidentziak. Zereginak. Aretoak eta bilerak prestatzea, anomaliak eta intzidentziak.
 - 2.– Mandatuak. Mandatuen erregistroa. Jarraibide eta jakinarazpen pertsonal eraginkorrak interpretatzea.
 - 3.– Ofimatikako oinarritzko makinak erabiltzea: Dokumentuen erreprografia: fotokopiagailua, plastifikagailua, eskanerra, inprimagailua, orriak josteko makina, eta grapagailua. Fotokopia-tresnak maneiatzea. Maizen azaldutako anomaliak. Enkargua. Laneko segurtasun-arauak eta ingurumena babestekoak.
 - 4.– Paketeak, dokumentuak eta biltegiko materiala jaso, banatu eta entregatzea.
 - 5.– Lan-arriskuen prebentzioa. Oinarritzko kontzeptuak. Eskubideak eta betebeharrak.
- **Ostalaritzako Laguntzailea** izateko, gai hauek ikasi behar dituzu:

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

SEGURTASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

- 1.– Ostalaritzako laguntzailearen zereginak. Sukaldeko makinak, tresnak eta altzariak.
- 2.– Elikagaiak: haragiak, hegaztiak, arrainak, esnekiak, barazkiak, arrautzak, lekariak, fruituak, zerealak, koipeak, azkenburukoak. Elikagai freskoak garbitu eta prestatzea. Elikagai-kutsadura.
- 3.– Laneko higiena eta garbitasuna. Sukaldeko makinak, tresnak eta altzariak garbitzea. Zaborrak eta hondakinak kudeatzea. Garbiketa eta desinfekzioa.
- 4.– Jantokia: jantokia antolatzeko oinarrizko teknikak; jantokietan erabiltzen diren tresnak; mahaia prestatzea, eta jantokia jaso eta garbitzea.
- 5.– Ostalaritzako laguntzailearen lanetako segurtasuna eta lan-arriskuak. Arriskuak eta kontrolguneak. Sute-arriskua: prebentzio-neurriak eta jarduketak.

Gai guztien edukia web-orri honetan dago:

<https://www.euskadi.eus/enplegu-publicoa/>

3. ariketa

Euskara

- Borondatezkoa eta ez-baztertzailea da.
- Ez duzu ariketa hau egin behar, euskararen 1. hizkuntza-eskakizuna badaukazu.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

SEGURTASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

- 1. hizkuntza-eskakizunaren ziurtagiria aurkez dezakezu, euskara-probaren aurreko egunera arte.
- Ez duzu ariketa hau nahitaez egin behar. Baina gainditzen baduzu, puntu gehiago lortuko duzu.

Noiz?

Epaimahaiak argitaratuko du noiz den azterketa, 1. eta 2. ariketak zuzendu eta emaitzak argitaratu ondoren.

Nolako da azterketa?

Ariketa honetan baloratuko da zenbateraino dakizun euskara, lanpostuko zereginak egiteko.

Nola puntuatu?

Ariketa hau gainditu edo 1. hizkuntza-eskakizunaren ziurtagiria aurkeztu baduzu, 4,5 puntu lortuko dituzu.

7. Azken puntuazioa

Zure azken puntuazioa jakiteko, hautaprobetako ariketa guztietako puntuak batuko dira.

2. ariketako azterketa-mota biak gainditu badituzu, amaierako 2 puntuazio izango dituzu.

Pertsona berak bi lanpostuetan puntuaziorik altuena lortu badu, bietako zein esleitzea nahi duen aukeratu beharko du.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

SEGURTASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

8. Pertsona hautatuak

Pertsonen azken puntuazioa kontuan hartuta, epaimahaiak lanpostu bat lortzen duten pertsonak zeintzuk diren eta lanpostu hori zein den adieraziko du.

9. Lan-poltsak

Hautaprobeen ondoren, lan-poltsak egingo dira, lanpostuak aldi baterako betetzeko, behar denerako.

Lan-poltsan, ariketak gainditu dituzten pertsonak egongo dira.

Lan-poltsa pertsona-zerrenda bat da, eta pertsona horiei Administrazioak deituko die, probetako puntuazioaren arabera, lanpostuak denboraldi jakin baterako betetzeko.

Lan-poltsa horrek Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailean dauden gainerako lan-poltsek bezala funtzionatuko du.

10. Identifikazio elektronikorako bitartekoak

Interneten bidez eskabidea aurkeztu ahal izateko eta web-orrian argitaratzen den informazioa ikusi ahal izateko, identifikazio elektronikorako bitartekoren bat izan behar duzu. Esteka honetan topa ditzakezu:

<https://www.euskadi.eus/identifikazio-elektronikorako-onartutakobitartekoak/web01-sede/eu/>

Horrelako bitartekorik ez badaukazu, eskabidea Interneten bidez aurkeztu ahal izango duzu. Pasahitz bat emango dizute.

EUSKO JAURLARITZA**GOBIERNO VASCO**

SEGURTASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

Onartutakoen zerrenda argitaratu ondoren, gainerako informazioa ikusteko identifikazio elektronikorako bitartekoren bat baduzu bakarrik ikusi ahal izango duzu.

II. ERANSKINA

GAI-ZERREDA OROKORRA

- 1.– Espainiako 1978ko Konstituzioa: oinarrizko eskubideak eta betebeharrak.
- 2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua.
- 3.– Administrazio publikoa. Langileak: motak eta betebeharrak.
- 4.– Administrazio-prozedura erkidea. Administrazio-prozedura erkidearen faseak: hastea, antolatzea, instruitzea eta amaitzea.
- 5.– Emakumeen eta gizonen berdintasuna. Euskara EAEko administrazio publikoetan.

III. ERANSKINA

ESKABIDE-EREDU OFIZIALAK

 EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO	Adimen-desgaitasuna duten pertsonak enplegu publikoan sartzeko hautaketa-prozesua MENDEKO LANPOSTUA
---	--

IZANGAIAREN DATUAK

Izena	Lehen abizena	Bigarren abizena
NAN	Jaioteguna	Sexua
		Emakumezkoa ☐
		Gizonezkoa ☐
Helbidea (kalea, zenbakia...)		
Herria	Posta-kodea	Lurralde historikoa
1.telefonoa	2. telefonoa	Helbide elektronikoa

Zer egokitzen behar duzu probak egiteko?

ORDEZKARIAREN DATUAK

Izena	Lehen abizena	Bigarren abizena
NAN	Nazionalitatea	
Helbidea (kalea, zenbakia,...)		
Herria	Posta-kodea	Lurralde historikoa
1. telefonoa	2. telefonoa	Helbide elektronikoa

	Adimen-desgaitasuna duten pertsonak enplegu publikoan sartzeko hautaketa-prozesua MENDEKO LANPOSTUA
---	---

PARTE HARTZEKO DATUAK

Zer hizkuntzatan egin nahi dituzun oposizioko ariketak

- Gaztelaniaz ☐ - Euskaraz ☐
--

Euskararen ezagutza

	Bai	Ez
1. hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta daukat	☐	☐
1. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko proba egin nahi dut	☐	☐

Segurtasun Sailari baimena ematen diot adimen-desgaitasunaren mailaren aitortpena egiaztatzeko

- Bai ☐ - Ez ☐	Egiaztatzeko baimenik eman ezean edo desgaitasuna foru-aldundiez bestelako administrazio batek aitortu badu, izangaiak behar den dokumentazioa aurkeztu beharko du.
--	---

Erantsitako dokumentuak:

- % 33ko edo hortik gorako adimen-desgaitasuna egiaztatzen duen desgaitasun-ziurtagiria (desgaitasuna egiaztatzeko baimena eman ezean edo desgaitasuna foru-aldundiez bestelako administrazio batek aitortu badu) ☐
- Ordezkaritza-egiaztatzea, eskatzailearen izenean jardunez gero. ☐

Lekua	Data

Sinadura	
	Dokumentu honen sinatzaileak hau adierazten du: • Adierazitako deialdiko edo deialdietako hautaprobak egiteko onartua izateko eskatzen du. • Eskabidean agertzen diren datuak egiazkoak dira. • Administrazio publikoan lan egiteko behar diren eskakizunak betetzen ditu.

Datu pertsonalen babesa

Datuen babesari buruzko oinarrizko informazioa

Zure datu pertsonalak tratatu eta tratamendu-jarduera honetan sartuko dira: **Hautaketa-prozesuak**

Arduraduna: Giza Baliabideen Zuzendaritza. Segurtasun Saila.

Helburua: enplegu publikora sartzeko prozesuak kudeatzea eta Segurtasun Saileko eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako langileen lanpostuen behin-behineko esleipenak kudeatzea. Segurtasun Saileko eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako aldi baterako lan-eskaintzen lan-poltsak nahiz langile lan-kontratudunen kontratazioa kudeatzea (eraketa, integrazioa eta birbaremazioa).

Legitimazioa: tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak erabiliz egindako misio bat betetzeko (6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa; 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legea onartzen duena; 2/2018 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 23koa, Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena).

Hartzaileak:

- Sindikatuak eta langileen arloak.
- Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.
- Lan-poltsetan dauden langileen datuak Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio publiko batzuei eta sektore publikoko entitateei eman ahal izango zaizkie.

Eskubideak: datuetarako irispidea izatea, datuak zuzentzea eta ezerezteia, eta informazio gehigarrian azalduta dauden beste zenbait eskubide.

Informazio gehigarria: web-orri honetan kontsultatu dezakezu datu-babesari buruzko informazio gehigarri zehatza:

www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/128100-cap2-eu.shtml

Araudia:

- Datu Pertsonalak Babesteko Erregelamendu Orokorra (<https://eur-lex.europa.eu/legalcontent/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES>).
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa (<https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673>).

	Adimen-desgaitasuna duten pertsonak enplegu publikoan sartzeko hautaketa-prozesua OSTALARITZAKO LAGUNTZAILE LANPOSTUA
---	--

IZANGAIAREN DATUAK

Izena	Lehen abizena	Bigarren abizena
NAN	Jaioteguna	Sexua
		Emakumezkoa ☐
		Gizonezkoa ☐
Helbidea (kalea, zenbakia...)		
Herria	Posta-kodea	Lurralde historikoa
1.telefono	2. telefonoa	Helbide elektronikoa

Zer egokitzen behar duzu probak egiteko?

ORDEZKARIAREN DATUAK

Izena	Lehen abizena	Bigarren abizena
NAN	Nazionalitatea	
Helbidea (kalea, zenbakia,...)		
Herria	Posta-kodea	Lurralde historikoa
1. telefonoa	2. telefonoa	Helbide elektronikoa

	Adimen-desgaitasuna duten pertsonak enplegu publikoan sartzeko hautaketa-prozesua OSTALARITZAKO LAGUNTZAILE LANPOSTUA
---	--

PARTE HARTZEKO DATUAK

Zer hizkuntzatan egin nahi dituzun oposizioko ariketak

- Gaztelaniaz ☐ - Euskaraz ☐
--

Euskararen ezagutza

	Bai	Ez
1. hizkuntza- eskakizuna egiaztatuta daukat	☐	☐
1. hizkuntza- eskakizuna egiaztatzeko proba egin nahi dut	☐	☐

Segurtasun Sailari baimena ematen diot adimen-desgaitasun mailaren aitortpena egiaztatzeko

- Bai ☐ - Ez ☐	Egiaztatzeko baimenik eman ezean edo desgaitasuna foru-aldundiez bestelako administrazio batek aitortu badu, izangaiak behar den dokumentazioa aurkeztu beharko du.
--	---

Erantsitako dokumentuak:

- % 33ko edo hortik gorako adimen-desgaitasuna egiaztatzen duen desgaitasun-ziurtagiria (desgaitasuna egiaztatzeko baimena eman ezean edo desgaitasuna foru-aldundiez bestelako administrazio batek aitortu badu) ☐
- Ordezkaritza-egiaztatzea, eskatzailearen izenean jardunez gero. ☐

Lekua	Data

Sinadura	
	Dokumentu honen sinatzaileak hau adierazten du: • Adierazitako deialdiko edo deialdietako hautaprobak egiteko onartua izateko eskatzen du. • Eskabidean agertzen diren datuak egiazkoak dira. • Administrazio publikoan lan egiteko behar diren eskakizunak betetzen ditu.

Datu pertsonalen babesa

Datuen babesari buruzko oinarrizko informazioa

Zure datu pertsonalak tratatu eta tratamendu-jarduera honetan sartuko dira: **Hautaketa-prozesuak**

Arduraduna: Giza Baliabideen Zuzendaritza. Segurtasun Saila.

Helburua: enplegu publikora sartzeko prozesuak kudeatzea eta Segurtasun Saileko eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako langileen lanpostuen behin-behineko esleipenak kudeatzea. Segurtasun Saileko eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako aldi baterako lan-eskaintzen lan-poltsak nahiz langile lan-kontratudunen kontratazioa kudeatzea (eraketa, integrazioa eta birbaremazioa).

Legitimazioa: tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak erabiliz egindako misio bat betetzeko (6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa; 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legea onartzen duena; 2/2018 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 23koa, Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena).

Hartzaileak:

- Sindikatuak eta langileen arloak.
- Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.
- Lan-poltsetan dauden langileen datuak Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio publiko batzuei eta sektore publikoko entitateei eman ahal izango zaizkie.

Eskubideak: datuetarako irispidea izatea, datuak zuzentzea eta ezerezte, eta informazio gehigarrian azalduta dauden beste zenbait eskubide.

Informazio gehigarria: web-orri honetan kontsultatu dezakezu datu-babesari buruzko informazio gehigarri zehatza:

www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/128100-cap2-eu.shtml

Araudia:

- Datu Pertsonalak Babesteko Erregelamendu Orokorra (<https://eur-lex.europa.eu/legalcontent/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES>).
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa (<https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673>).